

## **Balio proposamena:**

Futboleko aplikazio bat proposatzeko asmotan gaude. Gure aplikazioaren berezitasuna honakoa da: futbolera jolasteko aukera izango dute, nahiz eta, futbolera jolasten duten lagunak ez izan, izan ere, aplikazioak jendea bilatuko du beraiekin jolastu ahal izateko. Berrikuntza honekin futbolera jolastu ahal izateko jendea bilatzeko buruhaustek ezabatu egingo dira eta edozein momentutan jolastu ahal izango du.

Gure aplikazioa erabiliko balute bezeroek, ez luteke jendea bilatu beharko futbolera jolastu ahal izateko; guk aplikazioari esker biltuko genuke, beraien partetik, futbolera jolastu ahal izateko jendea. Ondorioz denbora asko eta buruhauste handiak aurreztuko lukete eta zuzenean aplikazioak markatzen duen orduan jolastera joan beharko liriateke. Eta honetarako honako balioak izango lituzke:

Nobedadea, gure inguruan ez dagoelako horrelako beharrik asetzen dituen aplikaziorik. Nahiz eta beste kirol batzuetakoa egon, futbolekorik ez da existitzen.

Pertsona desberdinekin elkartzeko eta harreman gehiago edukitzeko aukera emango genuke, adina zerikusirik izan gabe. Ez duzu beti pertsona berdinekin jolastuko eta horrek jende asko ezagutzera eramango zaitu.

Beste aldetik, lana erraztuko genuke, jendea bilatzeko moentuan. Adibidez, 11 lagun zarete ekipo bateanpartido bat jolasteko eta beste 11 behar dituzute beraien

aurka jolastu ahal izateko, ba aplikazioan zuen informazioa sartzen baduzue, guk 11 pertsona aurkituko ditugu zuen aurka jolastu ahal izateko. Horrez gain, ekipo bat osatzeko ere erraztasunak emango genituzte, izan ere, ekipo bat osatzeko bi edo hiru pertsona falta bazaizkizue adibidez, guk aurkituko genituzke aplikazioari esker.

Balio kualitatiboari dagokionez, aplikazioaren diseinua oso sinplea izango zen eta edonork erabili ahal izateko prestatuko genuke.

Balio kuantitatiboari dagokionez, prezioa oso eskuragarria izango zen. Hilabetero prezio baxu bat ordaindu beharko zen aplikazioa erabili ahal izateko, gimnasio bateko sozioa izango bazina bezala eta gero denen artean zelaia alokatzeko ordaindu beharrekoa jartzea.

Lehen gure inguruan ez zegoen horrelako aplikaziorik futbolarekin zerikusirik zutena, bakarrik beste kirol batzuetako aplikazioa zegoen. Orain guri esker, futbol aplikazio bat egongo da eta jendeak futbolera jolastu ahalko du beste pertsona ezezagun batzuekin eta horrela gainera jende gehiago ezagutu ahalko dute.

Laburbilduz, gure aplikazioak gaur egungo gizarteari modu erraz batean futbol partiduak jolastu ahal izatea lagunduko lioke eta horrela gizartean futbolera jolasteko dauden beharrak asetuz.